



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriak 11

Vitoria-Gasteiz, 11 de octubre de 2022

Lehendakaritza

JAURLARITZAK LAGUNTZA EMANGO DU ZAHARTZE OSASUNTSUAREN, MUGIKORTASUN ELEKTRIKOAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ARLOKO I+G TRAKZIO PROIEKTU KOLABORATIBOEN DISEINUA BULTZATZEKO

Gobernu Kontseiluak, ZTBP 203-aren Zeharkako Trakzio Ekimenen esparruan, laguntza-programa berria, arautzen duen dekretua onartu du gaur.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Planaren berritasun nagusien artean, zeharkako trakzio ekimenen kontzeptua dago. Ekimen horiek RIS3 espezializazio adimenduneko arloen arteko lankidetzak bultzatuko duen tresna gisa ulertzen dira, eremu estrategiko zehatzetan. Hasiera batean, zeharkako hiru trakzio-ekimen proposatzen dira Zahartze Osasuntsuaren, Mugikortasun Elektroaren eta Ekonomia Zirkularraren eremuetan, hain zuzen ere.

Zeharkako ekimen eragileen helburu nagusia Ikerketa eta Garapenerako Zeharkako Proiektu Eragile berriak bultzatzea da. Proiektu horiek ezartzeak emaitza ukigarriak eta euskal gizartearentzat agerikoak lortzen ditu. Trakzio-proiektu horiek errazago identifikatzeko, tresna berri baten euskarria behar da, laguntza-programa bat, zeinaren baldintzak Gobernu Kontseiluak onartutako Dekretuan arautzen baitira.

Laguntza Programak diseinuaren hasierako fasea estaltzen du, eta, berrikuntza gisa, aurkeztutako proiektuak irismen eta dimentsio handiagoko trakzio-proiektuetan txertatu ahal izatea bilatuko da, balio-kateko eragileen arteko sinergiak eta lankidetzak bultzatzeko.

Laguntzak gehienez ere 25.000 eurokoak izango dira eskaera bakoitzeko, eta mota horretako proiektuak gidatzeko gaitasuna duten erakundeei zuzenduko zaizkie, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile zientifiko-teknologikoak, klusterren antolakunde dinamizatzaileak, enpresak, elkarte edo fundazio gisa eratutako irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta erakunde eta sozietate publikoak barne. Ebaluatu ahal izateko eta dirulaguntza jaso ahal izateko, aurkezten diren proiektuek gutxienezko baldintza batzuk bete beharko dituzte beren gaikako irismenari, guztizko aurrekontuari eta partehartzen duten erakundeen gutxienezko kopuruari dagokienez.

Laguntzetarako baliabide ekonomikoak dagozkien deialdien bidez esleituko dira, eta Lehendakaritzako Berrikuntza Funtsean sartutako aurrekontu-kredituetatik etorriko dira. Aurreikuspenen arabera, urte honen amaieran laguntza-programa berriaren lehenengo deialdia onartuko da, eskabideak 2023. urtearen hasieratik aurkeztu ahal izateko.

Segurtasuna

GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DIO TRAFIKOAREN ARLOKO SEGURTASUN SAILAREN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENARI

- Era horretara, bi administrazioek 2017an izenpetutako hitzarmena berrituko da
- Garraioen eta errepideen ikuskapena barne hartuko du, bai eta bide-segurtasuna hobetzeko bide-informazioa trukatzea ere

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzahitzarmenari. Hitzarmenak trafikoa, garraioen ikuskapena, errepideak eta bide-segurtasuna hobetzeko bide-informazioa trukatzea barne hartuko ditu.

Bi administrazioek beharrezko jo dute 2017an izenpetutako hitzarmena, jada amaituta dagoena, berritzea, bide-segurtasunarekin lotutako euren eginkizunen eraginkortasuna hobetze aldera. Horrela, hitzarmen berri honek aurrekoaren ildoari jarraituko dio, eta, besteak beste, erraztuko du trafikoari eta istripuei buruzko datuak, trafiko-kameren irudiak edo bide-informazioa, oro har, trukatzea. Bestalde, lankidetzahitzarmen berriak barne hartuko ditu, hala nola, zirkulazio-baimen osagarria duten ibilgailuen jarraipena eta kudeaketa eta pertsonen eta salgaien lurreko garraioaren ikuskapena.

IRAUPENA ETA EZARPEN-ESPARRUA

Hitzarmen honen ezarpen-esparrua Arabako Lurralde Historikoko Foru Errepideen Sarea izango da, eta arreta berezia eskainiko zaie lehentasuneko eta oinarrizko sareei, zirkulazio-indize altuak jasaten baitituzte, eta, gainera, edozein gorabeherak trafikoa erabat ito baitezake eta horrek eragina izan baitezake maila baxuagoko beste errepide batzuetan.

Hitzarmenak 4 urteko indarraldia izango du, eta gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango da.

Segurtasuna

ZUZENBIDE FAKULTATEKO IKASLEEN IKASKUNTZA PRAKTIKORAKO UPV/EHUREKIN EGINDAKO HEZKUNTZA-LANKIDETZAKO HITZARMENA LUZATU DA

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio gaur Eusko Jaurlaritzak, Segurtasun Sailaren bidez, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV/EHU) Zuzenbide Fakultateko ikasleen ikaskuntza praktikorako duen hezkuntza-lankidetzako hitzarmena luzatzeari. Hitzarmena 2018ko abenduaren 11n sinatu zen, eta orain arteko lankidetzak eta esperientzien trukea bi aldeentzat positiboak eta baliagarriak izan direla kontuan hartuta, beste 4 urtez, hau da, 2022ko abenduaren 11ra arte, luzatzea erabaki da.

Hezkuntza-lankidetzako hitzarmen honen helburua da ikasleen formakuntza praktikoa hobetzea eta lantokietako egoera errealetara egokitzea, era horretara kolektiboaren eta lan-errealitatearen arteko harreman zuzena sustatuz.

Lana eta Enplegua

LANBIDEK BERE LANGILERIA INDARTU DU BIZITZEKO GUTXIENeko DIRU-SARRERA HOBETZEKO

Gobernu Kontseiluak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko langileak indartzea onartu du gaur, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren kudeaketa hobetzeko. Joan den ekainaren 1ean eskumena hartu ondoren, baliabide ekonomikoen eskualdaketa egiten zen, baina ez langileena; beraz, orain egitura 79 pertsonatan handituko da.

Idoia Mendia lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio prestazio hori hobetzeko 79 plaza sortzeari. Lanbidek ekainaren 1ean bereganatutako eskumenaren arabera, kupoaren metodologia aplikatzearen ondoriozko baliabide ekonomikoak eskualdatu behar ziren, baina ez zegoen jasota behar ziren giza baliabideak eskualdatzea.

Horregatik, eta bere gain hartutako lan-karga handitzearen ondorioz, Lanbidek bere egitura indartzea erabaki du, eta, horretarako, honako lanpostu hauek hornitu ditu: Enplegu eta Prestakuntzako arduradun bat; Enplegu eta Enplegurako Prestakuntzako teknikari hamalau; Gizarte Laguntzako teknikari bat; aholkulari juridiko bat; 51 administrari orokor; Aurrekontuen Kudeaketa Ekonomikoko teknikari bat; kontabilitateko administrari bat; eta informatikako teknikari bat. Prestazio eta Gizarteratze Zuzendaritzari, Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritzari eta Lanbideren bulegoiei beraiei esleituko zaizkie.

Lana eta Enplegua

LANBIDEK HANDITU EGIN DITU DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ENPLEGUARI EUSTEKO ZENTRO BEREZITAKO DIRULAGUNTZAK

Gobernu Kontseiluak onartu du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak desgaitasuna duten pertsonen lanpostuei eusteko enplegu-zentro bereziei ematen dizkien dirulaguntzen zenbatekoak handitzea.

Idoia Mendia lehendakariordeak eta Lan eta Enplegu Sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak berretsi egin du, gaurko bileran, desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuei eusteagatik enplegu-zentro bereziei ematen zaizkien dirulaguntzen zenbatekoa lanbide arteko gutxieneko soldataren % 50etik % 55era igotzea, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginekin. Dirulaguntza horiek pertsona horien soldata-kostuei estaldura ematen diete.

Modu honetan, Euskadiko araudia Estatuko araudira egokitzen da, iaz aldatu izan zena, Desgaitasunen bat duten pertsonen enplegu-urrakotasunaren eta lan-merkatuan sartzeko dituzten zailtasunen jakitun.

Neurri hori Lan eta Enplegu Sailak inklusioan eta berdintasunean inbertitzeko egiaztatutako testuinguru batean gertatzen da. Ikuspegi hori Enpleguaren Euskal Estrategia 2030en parte da, eta horren ondorioz, aurrekontua % 5,5 handitu zen 2020an pandemiaren ondorioei aurre egiteko, beste bultzada bat eman zitzaien 2021ean enplegu-zentro bereziei, % 9ko aurrekontu-igoerarekin, eta 2022an bide berri bat ireki zen inbertsioaren aldeko apustua bikoiztuz.

Lana eta Enplegua

LANBIDEK BERE BULEGOETAN EMANGO DU BAKQ ZIURTAGIRIA, HERRITARREK ADMINISTRAZIOAREKIN HARREMAN DIGITALA IZATEKO ERABILTZEN DUTENA

- **Madrilgo Enplegu Agentziarekin ere hitzarmen bat sinatuko du, lan-orientazio birtualari buruzkoa**

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak BakQ ziurtagiria emango du bere bulegoetan, herritarrek ziurtagiri horrekin harreman digitalak izan ditzaten eta administrazioarekin izapideak digitalki egin ahal izateko.

Idoia Mendia lehendakariordeak eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, Jaurlaritza Kontseiluak berretsi egin du Lanbideren eta Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe SAREN arteko hitzarmena sinatzea, Lanbide Izenperen erregistro-erakunde bihur dadin. Enpresa hori da Euskadin zerbitzu elektronikoak ematen dituen bakarra. Horrek esan nahi du BakQ ziurtagiriak zerbitzu publikoaren erabiltzaileei eman ahal izango zaiela, dauden 42 bulego fisikoen bidez lurralde-estaldura baliatuz, horrela herritarrei errazago izango zaie.

Herritarrek administrazio publikoekin harremanak izateko duten modua aldatu egin da. Izapidetze elektronikoa ohikoa da jada, bai administrazioen barne-kudeaketan, bai administrazioen eta herritarren arteko harremanetan, eta, horren ondorioz, zerbitzuak emateko eredu berriak behar dira.

Erronka horri aurre egiteko, Lanbidek Bulego Birtuala jarri du abian aurrean bertan. Proiektu aitzindaria da, pertsonen eta enpresei hurbiltzeko, eta zerbitzu-kanal berriak irekitzen dizkie hala aukeratzen duten erabiltzaileei. Nahiz eta pertsona fisikoak ez dauden behartuta administrazioarekin elektronikoki harremanetan jartzera, joera berrien ondorioz beharrezkoa da herritarrei identifikazio baliabide seguruagoak eskaintzea. Horretarako, lankidetzahitzarmen hau sinatuko da, eta erabiltzaileei indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen lege- eta segurtasun-bermeak eskainiko zaizkie.

Era berean, Gobernu Kontseiluak onartu du Lanbidek lankidetzahitzarmen bat sinatzea Madrilgo Enplegu Agentziarekin, lan-orientazio birtualaren arloan. Zehazki, Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak orientazio-ekimen tutorizatu online batean interesatuta dago. Ekimen hori abian jarri zen, eta "Enplegurako bidaia" izena hartu zuen.

Madrilgo hiriko lanbide-orientazioko zerbitzuetan erreferentziatzeko proiektu egonkor bat da, eta ekimen berritzaile hartu da, jardunbide egoki gisa, Unibertsitate Autonomoak egindako Enplegu Udal Politiken Txosten batean. Txosten hori Madrilgo Erkidegoko hogeita bost udalerrri handien enplegu- eta garapen-politiken azterketa konparatibo bati buruzkoa da. Azterlanak adierazten du eredu izan daitekeela beste erakunde publiko batzuentzat, eta erreferentzia bihur daitekeela enplegu-politiken arloan, eta Lanbidek interesa duela bere materialak eta metodologia erabiltzeko, bai eta orientatzaileak teknika mota horietan prestatzeko ere.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

1,85 MILIOI EUROKO APARTEKO LAGUNTZAK ABELTEGIKO ANIMALIAK ELIKATZEKO OPERADOREENTZAT, UKRAINAREN INBASIOAK ABELTZAINZA-SEKTOREAN IZAN DITUEN ONDORIOAK ARINTZEKO

- **Lehengaien hornikuntza bermatu nahi da eta, horrela, abeltegiko animalien elikaduraren kostuen gehikuntzari eustea**
- **Laguntza horiei gehitu behar zaizkie Eusko Jaurlaritzak irailaren amaieran krisialdiaren testuinguruaren nekazaritza eta abeltzaintzako ustiatzei laguntzeko onetsi zituen 14,1 milioiak**

Eusko Jaurlaritzak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren deialdia onetsi du, abeltegiko animaliak elikatzeke operadoreei 1.850.000 euroko aparteko aldi baterako laguntzak emateko, Errusiak Ukraina inbaditzearen ondorio ekonomikoari aurre egiteko.

Helburua abeltzaintza-sektoreari laguntzea da, lehengaien hornikuntza bermatuz, eta, horri esker, abeltegiko animalien elikaduraren sargai nagusien gehikuntzei eustea; izan ere, Errusiak Ukraina inbaditzeak eragin handia izan baitu sektore horretan.

Ukrainaren inbasioak larritu egin du nekazaritza-sektoreen zati handi batek jada bizi zuen egoera (EBtik kanpoko sargaien mendekotasun handia dute). Energiaren, ongarrien, zerealen eta olioaren kostuaren igoeren eragin konbinatua bereziki larria da abeltzaintzarako; izan ere, gerra hazi zenetik, pentsuen eta artoaren (pentsua egiteko lehengai nagusia) prezioa % 45 igo da.

Laguntza horiei gehitu behar zaizkie Eusko Jaurlaritzak irailaren amaieran nekazaritza eta abeltzaintzako ustiatzei laguntzeko onetsi zituen 14,1 milioiak, Errusiak Ukrainaren aurka egindako inbasioa dela eta, ekoizpen-kostuak handitzearen ondorioz jasaten ari diren zailtasunak arintzeko xedez.

Kasu horretan, laguntzak azpisektore hauetako enpresei zuzenduta zeuden: behiak, ardiak, ahuntzak, haragitarako hegaztiak eta hegazti erruleak, txerriak, untziak, zaldiak, patata, erremolatxa, bazka-artoa eta zenbait lekadun.

Izapideak eta baldintzak

Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak izango du agindu honetan araututako laguntzak kudeatzeko eta ebatzeko eskumena. Enpresek baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute erantzukizunpeko adierazpen baten bidez. Adierazpen horretan berriaz adierazi beharko da onuradun izan daitezkeenak ekonomikoki kaltetuak izan direla Ukrainako inbasioaren ondorioengatik, Nazioarteko Komunitateak

Errusiaren aurka ezarritako zehapenengatik edo hark hartutako kontraneurriengatik. Era berean, aldi baterako esparru nazionala edo Europako aldi baterako esparrua aplikatzearen ondorioz jaso duten beste edozein laguntza deklaratu beharko da.

Laguntzak ofizioz emango dira. Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak egoitza elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/tablon-electronico-anuncio/>) argitaratuko ditu gehienez 20 egun balioduneko epean, agindua indarrean jartzen den egunetik zenbatzen hasita, erakunde onuradunen behin-behineko zerrenda eta jasoko duten laguntzaren behin-behineko zenbatekoa. Onuradunek 10 egun balioduneko epea izango dute, emaitza argitaratzen denetik, laguntza errefusatzeko edo datuak kontsultatzeari uko egiteko. Zerrendan agertzen ez diren eta onuradun izan daitezkeen erakundeek epe bera izango dute, egoki iritzitako akatsak, ez-egiteak edo bestelako inguruabarrak alegatzeko; horretarako, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Epe hori igarotakoan eta ezarritako baldintzak ofizioz egiaztatu ondoren, berehala eta Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren ebazpenaren bidez, dagozkion laguntzak emango dira.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

1,5 M € EKODISEINUA ETA DEMOSTRAZIOA EKONOMIA ZIRKULARREAN, EKOBERRIKUNTZA ESTRATEGIKOA ETA ETE ZIRKULARRAK ABIARAZTEKO

Gobernu Kontseiluak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren agindua onartu du. Agindu horren bidez ekonomia zirkularra berritzeko 1.500.000 euroko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dira eta deialdia egiten da.

Jarduketa-ildoak honako hauek dira:

1. ildoak: Ekodiseinua eta Demostrazioa Ekonomia Zirkularrean
2. ildoak: Ekoberrikuntza Estrategikoa
3. ildoak: ETE Zirkularra

Laguntzek Ekonomia Zirkularrerako Estrategiari eta Euskadiko Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren 2030erako Planari erantzuten diete, eta honako helburu hauek betetzea dute helburu:

- Produktibitate materiala % 30 handitzea
- Materialen kontsumoarekin lotutako karbono-emisioak % 26 murriztea
- Material zirkularren erabilera-tasa % 30 handitzea
- Hondakinen sorrera % 30 murriztea
- Euskal Autonomia Erkidegoan fabrikatutako produktu zirkularrenen fakturazioa hirukoiztea
- Enplegu zirkularra % 15 handitzea

Helburu eta emaitza zirkular horiek lortzeko, besteak beste, Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030 deitutakoan ezarritako lehentasunezko esparruetara bideratutako jarduketa berritzaileak bultzatu behar dira enpresetan, Europar Batasunaren erregulazio edo preskripzio-tresna bat egotearen, euskal ekonomiarako aukera baten eta soluzio ekoberritzaileak bizkortzeko lankidetzak publiko-pribatuaren behararen arabera.

Ekoberrikuntza bultzatzeko bi etapa behar dira:

1. Erronka zirkular espezifiko baterako "soluzio teknologiko berrien garapenaren" etapa, Europar Batasuneko tresna berde berriekin lerrokatua, gainerako euskal enpresentzat ekoberrikuntza zirkularrean enpresa aitzindari eta erreferenteen talde bat sendotuz. Soluzio horiek ekodiseinuko, ekonomia zirkularreko demostrazioko edo ekoberrikuntza estrategikoko proiektuen bidez garatzen dira.
2. Ekonomia zirkularren arloan garatutako "soluzio teknologiko edo metodologiko berritzaileak eraginkortasunez lehentasunezko balio-kateetako euskal ETE kopuru handi bati transferitzeko" etapa, bitarteko eragileen (klusterrak, enpresa-elkartek, eskualde-agentziak...) beharrezko parte-hartzearekin.

Dirulaguntzen deialdi honek bi etapei erantzun nahi die, hiru proiektu-ildo nabarmenen bidez: Ekodiseinua eta Demostrazioa Ekonomia Zirkularrean; Ekoberrikuntza Estrategikoa eta ETE Zirkularra.

Eskaeren aurkezpena

Dirulaguntza horiek kudeatzea eta aurkeztutako eskabideak aztertzea eta ebaluatzea Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzari dagokio, IHOBEn laguntzarekin.

Hiru ildoetarako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua EHAAAn argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Eskabidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoren bidez soilik eskuratu eta beteko da, helbide hauetan:

<https://www.euskadi.eus/servicios/1030807/> (gaztelaniaz)

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1030807/> (euskaraz)

Eskaeraren ondorengo izapideak, espedientearen jakinarazpenak eta kontsultak barne, bide elektronikoz egin eta jakinaraziko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» bidez:

<https://www.euskadi.eus/micarpeta>

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Proiektuak egikaritzeko gehieneko epea honela arautzen da:

- 1. ildo, Ekodiseinua eta demostrazioa ekonomia zirkularrean: 2023ko abenduaren 31
- 2. ildo, Ekoberrikuntza Estrategikoa: 2024ko ekainaren 30a
- 3. ildo, ETE zirkularra: 2023ko abenduaren 31

Proiektuak aldian-aldian monitorizatuko dira, Ekonomia zirkularren estrategian, Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren Planean, eta Eusko Jaurlaritzaren gainerako plan eta estrategietan jasotako ekonomiaren desmaterializazioa eta ekoberrikuntza zirkularra sustatzeko helburuei egiten dieten ekarpena ebaluatzeko.

Lan-ildo horiek azken 5 urteetan Ekodiseinua eta Demostrazioa Ekonomia Zirkularri lotutako 1. ildoan garatutako 130 proiektu baino gehiagoko esperientzia dute, eta enpresa-partzuergoek Ekoberrikuntza Zirkularren Programaren esparruan Ekoberrikuntza Estrategikoari lotutako 2. ildoan garatutako 50 proiektu baino gehiagokoa. ETE Zirkularri lotutako 3. ildoaren kasuan, ehun bat ETEk parte hartu dute tarteko eragile industrialek gidatutako 12 proiektutan.

Laburbilduz, dirulaguntza horien aplikazio-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoko industria-enpresetako ingurumen-berrikuntza da, eta helburu hauek ditu:

- Berotegi Efektuko Gasen (BEG) emisioak arintzea ekonomia zirkularraren bidez, ekoizpen-prozesuetako baliabideen efizientzia barne hartuz.
- Lehengaien kontsumoa murriztea eta, bereziki, lehengaiak ez isurtzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia berdea suspertzen, lehiakortasuna hobetzen eta enplegu kualifikatua sortzen lagunduko duten enpresa-jarduera jasangarriak sortzea.
- Lurraldeko ingurumen-erresilientzia handitzea, merkatu globalean erreplikagarritasun handia duten soluzio teknologiko berritzaileen bidez.
- Enpresen arteko lankidetzak sendotzea, Europako tresna zirkularren ondoriozko erronkei eta aukerei aurre egiteko.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

GOBERNU KONTSEILUAK ETXEBIDEN INSKRIBATUTA DAUDEN ETA URTEAN 21.000-39.000 EUROKO ERRENTAK DITUZTEN BIZIKIDETZA-UNITATEENTZAKO ALOKAIRU ESKURAGARRIAREN AGINDUA ONARTU DU

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburu Iñaki Arriolak eskatuta, etxebizitza babestuen errentamendu-erregimenaren barruan alokairu eskuragarriaren espezialitatea sortzeko agindua onartu du Gobernu Kontseiluak; espezialitate hori urtean 21.000-39.000 euroko errenta haztatuak dituzten bizikidetza-unitateei zuzenduta dago.

Arau berriak, halaber, merkatu librean etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak dituen eta Etxebiden erregistratutako 7.000 bizikidetza-unitatez osatuta dagoen kolektibo horri zuzendutako etxebizitzak eraikitzen dituzten sustatzaileentzako laguntza ekonomikoak aurreikusten ditu. Premia hori Europan ere ikusi da, Europako Parlamentuak “Etxebizitza eskuragarri bat lortzeko aukera ziurtatzeko politikak” txostenean adierazitakoaren arabera.

Araudi berriaren bidez, titulartasun pribatuko lurzoruak mobilizatu nahi dira, diru-sarrera maila horretan dauden kolektiboentzako alokairu eskuragarria bidera daitezen eta, era horretan, alokairuko etxebizitza babestu bat merkatu librean baino prezio merkeagoan eskura dezaten; titulartasun publikoko lurzoruak, lehen bezala, alokairu sozialera eta errenta baxuenetara bideratuko dira, batez ere 12.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenentzat (Etxebiden alokairurako inskribatutakoen % 56).

Familiek ordaindu beharreko gehieneko errentak:

Pertsona edo bizikidetza-unitate horiek ordaindu beharko dituzten gehieneko errentak honako hauek izango dira, betiere udalerrirako ezarritakoaren barruan familientzat onuragarriena den kalkulu-metodoa erabiliz.

		Euskadiko % 25 handiengan kokatutako batez besteko errentak dituzten udalerrriak, AMEaren arabera*	Euskadiko gainerakoa
21.000-30.000	euro	M ² -ko 7,5 euro edota m ² -ko batez besteko prezioaren % 75 gehienez, herriko AMEaren arabera	m ² -ko 7 euro edota m ² -ko batez besteko prezioaren % 70 gehienez, herriko AMEaren arabera
30.001-39.000	euro	M ² -ko 8,5 euro edota m ² -ko batez besteko prezioaren % 85 gehienez, herriko AMEaren arabera	M ² -ko 8 euro edota m ² -ko batez besteko prezioaren % 80 gehienez, herriko AMEaren arabera

*Azken AMEaren (Alokairu Merkatuaren Estatistika) arabera, Bilbo, Donostia eta Getxo

Alokairu eskuragarriko etxebizitzaren sustapen pribaturako laguntzak

Sustatzaile pribatuek laguntza publikoekin 21.000-39.000 euroko kolektibo berriarentzat alokairu eskuragarriko sustapen bat eraikitzeko hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte Etxebizitza Sailarekin. Akordioak etxebizitzak alokairu eskuragarri guthienez 20 edo 50 urtez eskaintzeko sinatuko dira, eta, bertan, inguruan dagoen eskaria nahikoa den aztertu eta jaso beharreko laguntzak zehaztuko dira.

Enpresek 18.000 euro jasoko dituzte xede horretara bideratutako etxebizitza bakoitzeko, eta zenbateko hori 45.000 eurora bitarte igoko da alokairu eskuragarriak 50 urtetik gorako iraupena badu. Hasierako epea amaitu ondoren guthienez beste 10 urtera luzatzea erabakitzen badute, 12.000 euroko laguntza jasoko dute etxebizitza bakoitzeko, eta guthienez 20 urtera luzatzen badute, berriz, 24.000 euroko laguntza.

Etxebizitzak esleitzeko garaian Etxebiden etxebizitza guztietarako eskatzailerik ez badago, sustatzaileek eskaintza ireki ahal izango diete ezarritako errentak dituzten baina Etxebiden inskribatuta ez dauden kolektiboek, eta, bigarren modu horretan sustapenak betetzen ez badira, Alokabidek Bizigune programaren baldintzekin eta kanonarekin alokatuko ditu etxebizitza horiek.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERARI BURUZKO ZIFREN TXOSTENA ETA BOTERE PUBLIKOEN BERDINTASUNEAN IZANDAKO JARDUNAREN MEMORIA JASO DITU

Gobernu Kontseiluak txosten hauen berri zian du gaur: [Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko 2021.urteko Zifrei buruzko Txostena](#) eta [EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana gauzatzean botere publikoek izan duten jarduera-memoria](#). Txosten horiek Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluak onartu zituen 2022ko ekainaren 8an.

Zifra-txostenaren helburu nagusia administrazio publikoei genero-desberdintasunei eta horien bilakaerari buruzko informazio eguneratua ematea da, emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko estrategiak eta politikak definitu ahal izan ditzaten, diagnostiko sendoagoetan oinarrituta.

Hona hemen txostenetik ateratako datu batzuk, 2021eko datuekin egina:

- Lan-merkatua: Emakumezkoen okupazio tasa gizonezkoena baino 8,5 puntu txikiagoa da; Lanaldi partziala duten langileetatik, ia %80a emakumezkoak dira.; Emakumezkoak zerbitzuen sektorean kontzentraturik jarraitzen duten (emakumezkoen %88ak egiten dute lan zerbitzuen sektorean) eta presentzia txikiarekin lehen sektorean, industrian eta, bereziki, eraikuntzan.
- Zaintza lanak: Seme-alabak zaintzeko lanuztea eskatzen duten 10 langileetatik 7 emakumezkoak dira emakumeek ugalketa-lanak bere gain hartzen jarraitzen dutenaren adierazle.
- Baliabide ekonomikoak: Emakumeek gizonek baino soldata gutxiago irabazten dute urtero-urtero, batzaz beste, 6.300 euro; Pentsioetan arrakala are nabarmenagoa da, gainera emakumezkoak dira gehiengo alargunentzako prestazioetan (%93) eta gutxiengo jubilazioetan (%38) eta ezgaitasun permanenteetan (%33).
- Emakumeen kontrako indarkeria: Generoan oinarritutako biolentzia pairatzen duten emakumeen artetik %72a beren bikotekide edota bikotekideohiaren partetik da eta %21a familiako beste kide baten partetik; Adin, jatorri eta egoera ekonomiko eta sozial guztietako emakumeek jasotzen dute indarkeria.

Bestalde, Botere publikoen Jarduera-Memoria Emakundek egiten du urtero, eta administrazio publikoek berdintasunaren arloan egiten dituzten jardueren azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa jasotzen du.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK BI MILIOI EURO ONARTU DITU NEXT GENERATION EU FUNTSEN ESPARRUAN KULTURA- ETA SORMEN-INDUSTRIEN AZELERAGAILUAK DIRUZ LAGUNTZEKO

Gaur egindako Gobernu Kontseiluak 1.994.383 euro onartu ditu 2022-2023 epealdirako Euskadiko Kultura- eta Sormen-Industrien azelerazio-proiektuak diruz laguntzeko. Diru-laguntzak Europar Batasunak finantzaturako Next Generation EU Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan sartzen dira.

Diru-laguntza horien bidez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak laguntza eman nahi die hazteko ahalmen handia duten eta hainbat jarduera garatzen dituzten proiektuei, hala nola mentoria eta tutoretza, prestakuntza intentsiboko programak, finantzaketa bilatzeko laguntza, inbertsioa edo harreman-sareen garapena.

Jarduera-ildo horren bidez, azelerazio-prozesuen pean dauden Kultura- eta Sormen-enpresei diziplina anitzeko laguntza eman nahi zaie, enpresa horietan integraturako profesionalak ekintzaitza eta finantza-trebetasunak eskuratuz, beren potentziala hazteko eta garatzeko aukera izan dezaten, eta, horrela, ekonomia erakartzeko eta enplegua sortzeko gune izan daitezen.

Diruz lagundu daitezkeen proiektuek, eskatutako zenbatekoaren arabera, 100.000 euroko gehieneko zenbatekoa jasoko dute. Eskabideak aurkezteko epea hiru astekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Next Generation EU

Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko helburua dute Next Generation EU funtsek. Aparteko aukera ematen dute erreberazio-plan espezifikokoak hedatzeko eta pandemiak inbertsioan eta jarduera ekonomikoan duen eraginari aurre egiteko. Helburu hori lortzeko neurriak sei zutabetan daude egituraturak, eta horien artean daude, besteak beste, trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala eta hazkunde-eredu adimendun, jasangarri eta integratzaile bat, honako hauek barne hartzen dituena: kohesio ekonomikoa, enplegua, produktibitatea, lehiakortasuna, ikerketa, garapena eta berrikuntza.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 13 MILIOI EURO BAINO GEHIAGO BIDERATUKO DITU AURTEN EUSKADIKO KOMUNIKABIDEENTZAKO DIRULAGUNTZETARA

Eusko Jaurlaritzak 13.694.000 euro bideratuko ditu aurtten Euskadiko hedabideen sektoreari zuzendutako dirulaguntzetara, honako helburu hauek lortzeko: alde batetik, sektore horri ekonomikoki eusten laguntzea eta sektorearen jardunarekin jarraitzea; desinformazioaren aurka eta publiko orokorraren alfabetizazio mediatikoaren alde borrokatzea; eta, bestetik, komunikabideen bidez euskara normalizatzen eta sustatzen laguntzea. Horrela, 13,7 milioi euroak bloke hauetan banatzen dira:

Alde batetik, Gobernu Kontseiluak dirulaguntzen deialdi bat onartu du gaur, 6 milioi eurokoa, Euskal Autonomia Erkidegoko orotariko komunikabideei edo Euskadin lan egiten duten hedabideei zuzendua, horien sostengu ekonomikoan eta desinformazioaren aurkako borrokan laguntzeko, bai eta publiko orokorraren alfabetizazio mediatikoan laguntzeko ere.

Deialdi honek kontuan hartzen du komunikabide profesionalak egunero egiten duten lana herritarren informazio egiazkoa eta egiaztatua izateko eskubidea bermatua egon dadin. Interes orokorreko informazio-lan hori are beharrezkoagoa eta nabarmenagoa izan zen Covid-19aren pandemian. Baina, hain zuzen, une horretan, komunikabideek diru-sarreraren beherakada handia izan zuten, bai salmentengatik, bai publizitateagatik.

Horregatik guztiagatik, Gobernu Kontseiluak 6 milioi euroko dirulaguntzen deialdi hau onartu du, prentsa idatziari eta bere digitalei, eguneroko hedabide natibo digitalei, irratiei eta telebistei zuzenduta.

Hartzaile guztiek egoitza edo ordezkari bat izan beharko dute Euskadin, eta gutxienez edukien edo programazioaren % 15 eskaini beharko dute euskal publikoari zuzendua. Laguntzen hartzaileek, gutxienez, EAEko hiru lurralde historikoetako bat izan beharko dute estaldura-eremu, eta EAEn, gutxienez, 5.000 laguneko jarraipena izan beharko dute. Laguntzen deialdia urriaren 18an argitaratuko da EHAAn, eta eskabideak hurrengo 15 egun naturaletan aurkeztu ahal izango dira.

Bigarrenik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak hiru urtean 12,7 milioi euro ematea erabaki du (2018-2021 deialdian baino % 5 gehiago) euskara hutsezko hedabideentzat, euskararen normalizaziorako eta erabilera sustatzeko funtsezko eragile diren aldetik. Urte anitzeko deialdia da (2022-2024), 2017an euskarazko hedabideen sektorearekin lortutako akordioa oinarri duena, eta 2022ko martxoan eguneratua. Hiru urtean 12,7 milioi euro esleituko dira, urtero 4.258.000 euro. 50 eskabide jaso dira, eta horietatik 45 erakundek jasoko dute dirulaguntza. Honako multzotan banatuko dira:

- Alde batetik, Euskadi osora zuzendutako argitalpenak edo aldizkariak, orotarikoak zein espezializatuak. Multzo horretara 26 eskaera aurkeztu dira, eta horien artean urtero 1.995.000 euro bideratuko dira guztira.
- Bigarrenik, irratiak. Atal honetan 5 hedabidek jasoko dituzte laguntzak, eta urtean 436.065 euro banatuko dira onuradun horien artean.
- Hirugarrenik, telebistak. Kasu horretan, 7 tokiko telebista izango dira onuradun; guztira, 1.506.750 euro urtean.
- Eta azkenik, hedabide digital hutsak. Multzo honetan 7 hedabide izango dira onuradun, guztira 320.250 euroekin urtean.

Euskara hutsezko hedabideen sektorea sendotzen eta hauei beraien jardunean laguntzeko helburu berarekin, deialdi honi gehitu behar zaio Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Berriari ematen dion zuzeneko dirulaguntza izenduna, EAE osoan estaldura duen euskarazko egunkari orokor bakarra den aldetik. Berriak jasotzen duen dirulaguntza 2.436.000 milioi eurokoa da urtean (7.308.000 euro 2022-2024 bitartean).

Azkenik, hirugarren laguntza-multzo batean, nagusiki gaztelaniaz argitaratzen duten komunikabideei zuzendutako dirulaguntzen deialdia dago, eskaintzen dituzten edukietan euskararen presentzia sustatzea helburu duena. Deialdi horretara milioi bat euro bideratu da, eta aurkeztutako 13 proiektutan banatuko da.

Presidencia

EI GOBIERNO APOYARÁ EL DISEÑO DE PROYECTOS TRACTORES TRANSVERSALES COLABORATIVOS DE I+D EN ‘ENVEJECIMIENTO SALUDABLE’, ‘MOVILIDAD ELÉCTRICA’ Y ‘ECONOMÍA CIRCULAR’

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el Decreto que regula el nuevo programa de ayudas, en el marco de las Iniciativas Tractoras Transversales del PCTI 2030.

Entre las principales novedades del *Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación Euskadi 2030* se encuentra el concepto de “Iniciativas Tractoras Transversales”, entendidas como un instrumento que potenciará el trabajo colaborativo entre las áreas de especialización inteligente RIS3 en ámbitos estratégicos concretos. Inicialmente se proponen tres Iniciativas Tractoras Transversales en los ámbitos del “Envejecimiento Saludable”, la “Movilidad Eléctrica” y la “Economía Circular”.

El principal objetivo de las Iniciativas Tractoras Transversales es impulsar nuevos Proyectos Tractores Transversales Colaborativos de Investigación y Desarrollo, cuya implementación consiga resultados tangibles y visibles para la sociedad vasca. Para facilitar la identificación de estos proyectos tractores se necesita el soporte de un nuevo instrumento, un programa de ayudas, cuyas condiciones se regulan en el Decreto aprobado por el Consejo de Gobierno.

El Programa de Ayudas cubre la fase inicial de diseño y, como novedad, se buscará que los diferentes proyectos presentados puedan integrarse en proyectos tractores de mayor alcance y dimensión, con el objetivo de impulsar sinergias y la colaboración entre los diferentes agentes de la cadena de valor.

Las ayudas tendrán una cuantía máxima de 25.000 euros por solicitud y se dirigen a aquellas entidades con capacidad para liderar este tipo de proyectos, incluidos los agentes científicos-tecnológicos de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, las organizaciones dinamizadoras de clústeres, las empresas, las entidades sin ánimo de lucro constituidas como asociaciones o fundaciones y las entidades y sociedades públicas. Para poder ser objeto de evaluación y aspirar a recibir subvención, los proyectos que se presenten deberán cumplir unos requisitos mínimos relativos a su alcance temático, presupuesto total y número mínimo de entidades participantes.

Los recursos económicos destinados a las ayudas se asignarán mediante las correspondientes convocatorias y procederán de los créditos presupuestarios incluidos en el Fondo de Innovación de Lehendakaritza. Está previsto que a finales de este año se apruebe una primera convocatoria del nuevo Programa de Ayudas, de forma que las solicitudes puedan comenzar a presentarse desde comienzos del año 2023.

Seguridad

EL CONSEJO DE GOBIERNO AUTORIZA EL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD Y LA DIPUTACIÓN ALAVESA EN MATERIA DE TRÁFICO

- **Se reedita así el convenio suscrito entre ambas administraciones en 2017**
- **Afectará a la inspección de transportes y carreteras, así como al intercambio de información viaria para la mejora de la Seguridad Vial**

